



**Azalpen txostena, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruz.**

Diputatu Nagusiaren 3/2019 Foru Dekretuak, ekainaren 29koak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoak, 9. artikuluan, honako jardun esparru eta eginkizun hauek esleitzen dizkio departamentuari: garraioak eta plangintza, bizikleta bideen azpiegiturak, lurralde antolaketa eta kohesioa, hirigintza planak sustatu eta gainbegiratzea, lurraldea sustatu eta lurzorua kudeatzea, Foru Aldundiak bere erabilera administratiboetarako behar dituen eraikinak eraiki eta birgaitzea, ondare higiezinaren kudeaketa teknikoa eta Lurralde informazioa

Bestalde, 19/2019 Foru Dekretuak, ekainaren 29koak, 5. artikuluan, departamentua bi zuzendaritza nagusitan antolatzen du: Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia eta Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.

### **MUGIKORTASUNEKO ETA GARRAIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA.**

Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren lan arloan, bi oinarritzko lan lerro izango ditu 2020. urtean: garraioa antolatzea eta sustatzea (100. aurrekontu programa) eta Gipuzkoako Bizikleta bideen Lurraldearen Arloko Planak aurreikusten duen bizikleta-bideen sarea garatzea (110. aurrekontu programa).

### **100 PROGRAMA. GARRAIOAREN ANTOLAMENDUA**

2020ko ekitaldian programa hau mantentzen da, ikuspuntu kuantitatibotik, departamentuaren oinarritzko ardatzetako bat bezala.

2020ko aurrekontu ekitaldian programa honen kontura landuko diren jarduera ildo eta ekintza guztien artean, nabarmendu behar da Mugi sistema mantentzea, 2013ko martxoan abian jarri ondoren.

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

El artículo 9 del Decreto Foral del Diputado General 3/2019, de 29 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones, atribuye al departamento las siguientes áreas de actuación y funciones: transportes y planificación, infraestructuras de vías ciclistas, ordenación y cohesión territorial, fomento y supervisión del planeamiento urbanístico, promoción del territorio y gestión del suelo, construcción y rehabilitación de los edificios de la Diputación Foral de uso administrativo propio, gestión técnica del patrimonio inmobiliario e información territorial.

Por su parte, el artículo 5 del Decreto Foral 19/2019, de 29 de junio, estructura el departamento en dos direcciones generales: la Dirección General de Movilidad y Transporte Público y la Dirección General de Ordenación del Territorio.

### **DIRECCIÓN GENERAL DE MOVILIDAD Y TRANSPORTE PÚBLICO.**

En el ámbito de la Dirección General de Movilidad y Transporte Público, dos son las líneas básicas de actuación a desarrollar en 2020: la ordenación y promoción del transporte (programa presupuestario 100) y el desarrollo de la red de vías ciclistas que prevé el Plan Territorial Sectorial de la Red de Vías Ciclistas de Gipuzkoa (programa presupuestario 110).

### **PROGRAMA 100. ORDENACIÓN DEL TRANSPORTE**

Este programa se mantiene en el ejercicio 2020, desde el punto de vista cuantitativo, como uno de los ejes básicos del departamento.

Entre las líneas de actuación y actividades que se desarrollarán en el ejercicio presupuestario de 2020 con cargo a este programa presupuestario cabe destacar, entre todas, el mantenimiento del sistema Mugi una vez producida su puesta en marcha en marzo del año 2013.



Horretarako, programa honetan aurrekontu partida batzuk xedatzen dira. Lehenengoak, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan % 45eko partaidetza duelako egin behar dituen ekarpenetarakoak, kontsorzioak bere jarduera ohiko moduan egin ahal izateko. Bigarrenak, zenbatekoaren aldetik garrantzitsuenak, erabilera orokorreko bidaiarien errepideko garraio publikoko herriarteko linea erregularrek dituzten galerak ordaintzeko, zeinen zenbatekoa 2020an, 2019.eko ekitaldiarekin konparatuz, handitu egiten baita.

VI. kapitulari dagokionez, Lurraldebus ticketing sistema berrirako 2020.eko inbertsioa jasotzen da, alde batetik, partida handituz, eta, bestetik, 2021. urteko aurrekonturako konpromiso-kredituaz.

#### 110 PROGRAMA. BIZIKLETA BIDEAK

Programa honek Gipuzkoako Bizikleta bideen Lurraldearen Arloko Planak aurreikusten duen bizikleta-bideen sarea garatzen du. Mugikortasun iraunkorra sustatzea da bere helburu nagusia.

Programak garrantzi handiko beste ekintza batzuk jasotzen ditu, bizikleta bideen erabilera eta mugikortasun iraunkorra sustatzeko ekintzak (web orria mantentzeko lana, Bizikletaz aldizkaria argitaratzea, irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzak, etab).

VI. kapitulari dagokionez, bizikleta bideen proiektuetan eta eraikuntzan inbertitzen jarraitzen dugu.

#### LURRALDE ANTOLAKETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren lan arloan, aurrekontu proiektuak Pasaialdeako badia berreskuratzeko inbertsioak gauzatzea aurreikusten du.

Departamentuak garatzen jarraituko dituen lan alor guztietatik hauek hartzen dituena: hirigintzaren eremuko lana; lurralde antolaketarako mekanismo lehen ezarritakoak nahiz berriak sustatzeko eta erabiltzeko lana; eta Gipuzkoako datu espazialen azpiegitura prestatu eta Aldundi osoaren eta, oro har, gipuzkoar gizartearen esku jartzeko lana.

Para ello, se contemplan en este programa la existencia de diversas partidas presupuestarias. Las primeras relacionadas con las aportaciones que la Diputación Foral de Gipuzkoa en su condición de partícipe en un 45% del Consorcio Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa para que ésta pueda desarrollar su actividad ordinaria. Las segundas y más importantes por su importe, son las dedicadas a sufragar el déficit de funcionamiento de las líneas de transporte público interurbano de uso general por carretera., cuyo importe en 2020, en comparación con el ejercicio 2019, aumenta.

En lo relativo al Capítulo VI, se contempla la inversión 2020 para el nuevo sistema de ticketing Lurraldebus, incrementando la partida, y con crédito de compromiso para el presupuesto 2021.

#### PROGRAMA 110. VÍAS CICLISTAS

Este programa presupuestario desarrolla la red de vías ciclistas que prevé el Plan Territorial Sectorial de la Red de Vías Ciclistas de Gipuzkoa, y su principal objetivo es promocionar la movilidad sostenible.

El programa también recoge otras acciones como por ejemplo las acciones para promocionar el uso de las vías ciclistas y la movilidad sostenible (mantenimiento de la página web, publicación de la revista Bizikletaz, concesión de ayudas a entidades sin ánimo de lucro, etc).

En lo relativo al Capítulo VI, se mantiene el esfuerzo inversor en proyectos y construcción de vías ciclistas.

#### DIRECCIÓN GENERAL DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

En el ámbito de la Dirección General de Ordenación del Territorio, el proyecto de presupuestos contempla la ejecución de inversiones regeneradoras en la bahía de Pasaialdea.

Asimismo, al Departamento le corresponde continuar las labores que se han venido desarrollando en los campos del urbanismo, de la promoción y utilización de los mecanismos, establecidos o nuevos, de ordenación territorial, de elaboración y de la puesta a disposición de la Diputación en conjunto, y de la sociedad guipuzcoana en general, de una infraestructura de datos espaciales de Gipuzkoa.



Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren beste ardatza da lurzoruaren eta ondarearen antolatzea.

Era berean Foru Jauregiaren eta departamentuen gainerako eraikinen mantentze, kontserbatze eta zaharberitze arkitektonikorako egon daitezkeen beharrak kudeatuko dira.

#### 200. PROGRAMA. PASAIALDEAKO ANTOLAKETA ETA SUSTAPENA

Programa honek 2020ko ekitaldirako zuzkidurak jasotzen ditu lanean jarraitzeko, badiako udalerriekin batera, Pasaia badiako arlo ekonomikoan, hirigintzakoan, sozialean eta kulturean biziberritzeko.

2020ko programa honetan esleitutako zenbatekoan Pasaia Ospitaletxo Eremuan lur azpiko aparkalekuak egiteko lanak .

#### 210 PROGRAMA. PLANGINTZA ETA LURZORUAREN ETA ONDAREAREN KUDEAKETA

210. programaren kargura, Aldundiaren ondare publiko eta pribatua osatzen diren ondasunen eta eskubideen administrazioa eta eskaera berrien kudeaketa (salerosketak, desjabetzeak, etab) egiten da.

Halaber, programaren bidez kudeatuko dira lurzoru eskuratzeko behar diren desjabetze espedienteak, Foru Aldundiko departamentuek eta BIDEGI foru sozietate publikoak gauzatu beharreko azpiegiturak eraikitzeari ekiteko.

Azken kontu honi dagokionez, joan den aurrekontu-ekitaldiaren kantitateak mantentzen dira.

#### 220 PROGRAMA. LURRALDEAREN ANTOLAKETA (ETA SUSTAPEN OROKORRA)

Programa honi dagokio, alde batetik, aztertzea eta ebaztea hirigintzako espedienteak; eta beste aldetik, Gipuzkoako datu espazialen azpiegitura prestatzea eta Aldundi osoaren eta, oro har, gipuzkoar gizartearen esku jartzeko lana.

Otro eje de la Dirección General de Ordenación del Territorio es el de la ordenación del suelo y patrimonio.

Asimismo, se atenderán a las necesidades de mantenimiento, conservación y rehabilitación arquitectónica del Palacio Foral de la Diputación y otros inmuebles del patrimonio de la Diputación Foral.

#### PROGRAMA 200. ORDENACIÓN Y PROMOCIÓN DE PASAIALDEA

Este programa contempla para el ejercicio 2020 dotaciones para continuar trabajando, junto con los municipios de la bahía, en pos de la regeneración económica, urbanística, social y cultural de la Bahía de Pasaia.

En el importe consignado para el ejercicio 2020 en este programa se contemplan obras de construcción de un aparcamiento subterráneo en la zona del Hospitalillo.

#### PROGRAMA 210. PLANIFICACIÓN Y GESTIÓN DEL SUELO Y PATRIMONIO

Con cargo al programa 210 se lleva a cabo la administración de los bienes y derechos que integran el patrimonio privado y público de la Diputación y se gestionan sus nuevos requerimientos (compras, expropiaciones, etc).

Asimismo, desde este Programa se gestionarán los expedientes expropiatorios necesarios en orden a la adquisición de suelo para acometer la construcción de las infraestructuras a ejecutar tanto por los distintos departamentos de la Diputación Foral, como por la Sociedad Pública foral BIDEGI.

En lo relativo a esta última cuestión, se mantienen las cantidades del pasado ejercicio presupuestario.

#### PROGRAMA 220. ORDENACIÓN (Y PROMOCIÓN GENERAL) DEL TERRITORIO

A este programa le corresponde, por un lado, analizar y resolver, los diversos expedientes urbanísticos; y por otro, la puesta a disposición de la Diputación en conjunto, y de la sociedad guipuzcoana en general, de una infraestructura de datos espaciales de Gipuzkoa.



VI. kapitulari dagokionez, Gipuzkoako datu espazialen azpiegituran inbertitzen jarraitzen dugu.

VII. kapitulari dagokionez, aurreikusten da jarduketak egitea hiri antolamenduko udal tresnak lurraldearen errealitate berrira eta gaur egungo ordenamendu juridikora egokitzea sustatzeko.

#### 230 PROGRAMA. ARKITEKTURA

Azkenik, 230. programaren barruan Departamentuak laguntza eta aholkularitza teknikoa emango die foru departamentuei arkitekturaren arloan.

Programa honetan azpimarratzekoa da Loiolako santutegiaren berezitasuna aintzat hartuta beraren mantentze-lanetara bideratutako zenbait partida sartzearen berritasuna.

En lo relativo al Capítulo VI, se mantiene el esfuerzo inversor en el desarrollo de la citada infraestructura de datos espaciales de Gipuzkoa.

Con respecto al Capítulo VII se prevén actuaciones de fomento de la adecuación de los instrumentos municipales de planeamiento a la nueva realidad del territorio y al ordenamiento jurídico actual.

#### PROGRAMA 230 ARQUITECTURA

Finalmente, en el marco del programa 230 el departamento continuará prestando la asistencia y la asesoría técnica a los departamentos forales en materia de arquitectura.

Cabe destacar en este programa la novedad de incluir unas partidas dedicadas al mantenimiento del Santuario de Loyola, dada su singularidad.




06 Departamentua MUGIKORTASUN EKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA/

Departamento 06 DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

(Mila eurokotan/Miles de euros)

Programak	LANGILEAREN GASTUAK 1	ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2	FINANTZA GASTUAK 3	TRANSFER. ARRUNTAK 4	KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5	INBERTSIO ERREALAK 6	KAPITAL TRANSFER. 7	FINANTZA AKTIBOAK 8	FINANTZA PASIBOAK 9	AURREKONTUA GUZTIRA
Programas	GASTOS DE PERSONAL	GTOS.CTES. BIEN.Y SERV	GASTOS FINANCIEROS	TRANSFER. CORRIENTES	CONTINGENC. IMPREVISTOS	INVERSIONES REALES	TRANSFER. DE CAPITAL	ACTIVOS FINANCIEROS	PASIVOS FINANCIEROS	TOTAL PRESUPUESTO
01. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Zerbitz Servicios Generales de Movilidad y Ordenación del	1.013,81	685,06				375,48				2.074,34
10. Garraioaren Antolamendua/ Ordenación del Transporte	1.293,59	4.108,13		38.537,57		2.623,63	73,90			46.636,83
11. Bizikleta bideak/ Vías ciclistas	67,13	722,60		20,00		5.601,50	150,00			6.561,22
20. Pasaialdeko Antolaketa eta Sustapena/ Ordenación y Promoción de Pasaialdea	155,81	200,00		100,00		5.403,00	500,00			6.358,81
21. Plangintza eta Lurzoruaren eta Ondarearen Kudeake Planificación y Gestión del Suelo y Patrimonio	805,08	780,58				722,95				2.308,61
22. Lurraldearen Antolaketa/ Ordenación del Territorio	953,70	170,00		98,00		490,00	450,00			2.161,70
23. Arkitektura/ Arquitectura	1.044,97	1.000,00				1.300,00				3.344,97
<b>Departamentua Guztira Total Departamento</b>	<b>5.334,09</b>	<b>7.666,37</b>		<b>38.755,57</b>		<b>16.516,55</b>	<b>1.173,90</b>			<b>69.446,48</b>



- 1. LANGILEAREN GASTUAK/GASTOS DE PERSONAL
- 2. ONDASUN ETA SERB.OHIKO/GTOS.CTES. BIEN.Y SERV
- 4. TRANSFER. ARRUNTAK/TRANSFER. CORRIENTES
- 6. INBERTSIO ERREALAK/INVERSIONES REALES
- 7. KAPITAL TRANSFER./TRANSFER. DE CAPITAL